## BEZEROEKIKO HARREMANAK



Negozio guztietan bezeroak dira punturik garrantzitsuenetako bat, horiek gabe ez baitago funtzionario-negoziorik. Haiekin harreman ona izatea ezinbestekoa da, lor dezakegun publizitaterik onena bezeroen bidez bakarrik lortuko baitugu. Gure enpresak bezeroarekin harreman zuzena izan nahi du beti, AV kalitatea hobetzeko. Hasteko, gure aplikazioak egiten duena ahalik eta argien azaltzea izango da gure marketinaren ardatza. Ez dugu nahi bezeroek ezeren zalantzarik izatea, ezta aplikaziotik ez den beste zerbaiten zain egotea ere. Horrela lortuko dugu bezerorik ez galtzea, eta harreman bat eraikiko dugu argitasunaren eta egiaren bidez.

Jakinarazpenak animozko eta intrigazko esaldiekin bidaliko ditugu aplikaziotik, instalatuta dutela eta irekitzeko gogoa eman diezaieten. Eta, aldi berean, egun berezi batzuetan gure bezeroei deskontu desberdinak egingo dizkiegu adibidez bat ordaindu bi eraman. Azkenik, sare sozialen bidez, foroak igoko ditugu, jendeak gurekin elkarreragiteko aukera izan dezan eta nahi dutena galde diezaguten, beti jakin dezaten adi gaudela eta haiengandik ahalik eta hurbilen egon nahi dugula.